



Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoa ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasangarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena. Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezen transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Metereologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da. Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure “kultur paisaia” sortuz.



Baratzea urrian

Piperrak biltzen hasi gaitezke, hotzak hasi aurretik egitea komeni da, aleak frexkotan jateko. Bestela, hotzak harrapatu eta hostoak zimeltzen hasten direnean, zuzenean landare osoa sustrai eta guzti lurretik atera eta buruz behera zintzilikatuko dugu. Honela, landareak sumatuko du lurretik ezin dituela elikagaiak eskuratu eta dituen erreserbak fruitua, hau da piperrak haztera bideratuko du. Ondoren piper aleak jaso eta soka baten bitartez lotu tira luzeak eginez, lehortzen jartzeko. Honela nahi izanez gero piper hautsa egiteko aukera izango da.

Bestalde abuztu amaieran eta irailean landatutako aza, uraza eta beste landareen zaintza egin, hasierako hotzek kaltetu ez ditzan, hauek izango baitira neguko gure barazkiak.



Ingurunea

Udazkenaren etorrera ederki asko nabarmenduko dugu, gure basoetan agertuko diren berde ilun eta marroi koloreei esker, esaerak dioen bezala “udazkena urtarorik ederrena”.

Baina udazken koloreaz gain, urrian haizea ere nabarituko dugu. Nola eragin izan ote dio haizeak baserriko bizimoduari? Bada zentzu askotan, hasi etxearen diseinutik eta uzta nola eta non gorde zehazteraino. Misteriotsua ere bada: somatu somatzen da baina ez da ikusten, eta egun haizetsuetan soinu beldurgarriak ateratzen ere badaki. Eta honek ia magiazko izaera zuen antzinako euskaldunentzat, haizea leize zuloetatik irteten zela pentsatzen baitzuten, beharbada mariren koba barrunbeetatik.

Sagardoa egiteko sasoia da, Igartubeitin urriaren 10tik 19ra, sagardo astea ospatuko dugu. Sagastiko sagar uztak biltzeko garaia da, kixkiaren laguntza baliatuz. Ondoren sagarrez betetako saski guztiak baserriko dolarera eraman eta kirikoketari ekiten zitzaien, hau da sagarra eskuz jotzeari. Sagarrak jotze hau aldi berean sorkuntza musikal bat dela ere esan dezakegu, izan ere kirikoketa lan bat izateaz gain (sagarra eskuz jotzea) txalapartako abesti eta erritmo bat da. Abesti hau bera jotzen zen sagardoa egiteko prozesu guztia amaitu ondoren, dei bat moduan, auzokoek jakin zezaten sagardoa eginga zela. Honela, sagarra eskuz jo ondoren patxa lortzen dugu. Hau dena bildu eta pilatxo bat egin ondoren dolareko habe nagusiarekin zapaltzen hasiko gara, zuku edo mostoa ateratzeko. Likido hau kupeletan gorde eta zenbait hilabetez bertan uzten da irakin dezan, honela sagardo bilakatuz.





Baratzearen eta ingurunearen zaintza Jakoba Errekondorekin kolaborazioan

- Oraindik ere bero handiak egiten baditu, ureztatu lasai baratzea.
- Ureztatzeko, baratze ondoan bidoi bat izatea ez da kalterako izango. Hau euri urarekin betetzen joan dadin, eta tarteka asun-belarra gehitzen badiogu are onuragarriagoa izango da gure ureztapena.
- Baratzeako belarrak kendu eta tarteka lurra arrotu atxurrarekin, urak errazago zirkula dezan.
- Lurra lehorra badago, kendutako zenbait belar txar bertan utzi lurra goxatzeko eta hezetzeko.
- Hego haize zakarreko egunetan baratzeako barazkiak babestu.
- Adi ibili lehenengo hotz eta izotzaldiei. Landareak estalkiren batekin tapatzea komeni da.
- Neguko zenbait lora landatzeko garaia da: lilipa, nartzisoa, irisa...
- Belazeak eta soropilak moztu eta ongarrizkeko garaia da, beldurrik gabe gainera.
- Azpitarako garoa biltzeko agaraia da.
- Negurako ganaduarentzako bazka bezala zenbait zuhaitzen aldaxkekin sortak egin, esaterako lizarrarekin.
- Fruta arbola gazteei egitura edo forma jakin bat emateko adarrak lotu.
- Fruta arbolen txertaketa egin.
- Su-egurretarako zuhaitz zehatzak mozteko azken txanpa.
- Usaindun loreak, sukalderako, sendabelarrak... biltzeko garaia amaitzear da, beraz orain biltzea komeni da.



**ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO
BARATZE EKOLOGIKORA**